
GALINDEZ

Agur, Josu Galindez!
Odol oiartzunetan
arrituta nago:
nik ez nekien zein zen
zure gizontzsuna
baño ederrago...!

Ezagunak ez giñan...
Izen ederra zeunkan
dardaraz betia;
on ala argi ziñan...
ala serbitzaria...
adorez jantzia...!

Berez ta doai landuz
dardaratsua ziñan
gizonen aurrian;
gaztetsu ziñelarik
zenbat gauz ederretan
jo zendun bizian...

Bildots errugabea
zan zure irudia
ontasun garbian;
gorrotozko zirkinik
ez zenduan onartu
gizontasunian.

Euskeldun edestia,
gizon min ta pozak
ta jakituria,
emen, maite zenduzen,
jatorriz zirelako
asaba-arimia.

Askatasun zorion,
odol ta itez nai zendun:
zer ederragorik...!
minkor zeunkan biotza
odola eriotzan
kateiz loturik.

Abertzaletasunez,
sua bezela ziñan,
maitasun garbia;

jakituriz bakana,
aberriaren gizon
gailen irudia.

Nun artu zendun gatza,
biziaren urratza,
odolez zaintzeko...?
Gizon eskubideak
martin il zinduezan,
erriak zaintzeko.

Galindez aintzatsua,
erria jaso dozu
semien pozetan;
zure gar indartsua
suagaz zabaldu da
Euskalerrietan.

ONAINDIA'TAR
ALBERTO

Zatozkit goi-argia,
gizona ikusteko,
bera dan bezela.
Ez dot nai bardintzerik
iñungo gizonekin
zerana zarela.

Argietarantz adi,
lurrean sustraiturik,
zugatzik ederrena;
euskal aritz zara,
giartsu eta lerden,
tantai oberena.

Euskaldun baratzean
millaka lili dagoz arrosari adi;

Markiñeko zelaian
lorarik bikaiñenak
gizona dirudi.

Malaxko arkaitzpean
arria eta ura
dizdizetan dagoz;
gizonen egarria
egiaren uragaz
ase nairik zagoz.

Egille almentsua
errukitsua izan zan
beren argiagaz;
miñean jarri eutsun
zurtasunaren deia
erretzasunagaz.

Zenbat biotz negarti
ainbeste gizonetan
zendukezan adi;
zuk izan bear zendun
zuzentasun abotsa,
euskaldun leiñargi.

Kristo ikusi nai dot
zuga ta pobrietan
negarrak txukatzen;
eskar-miñetan dozuz
zure itz entzuleak,
OLASO goratzen.

Paris'ko urretxindor...
Milloik gizonen izar...
Zapalduen poza...
Egin zendun on dana
koroi bat bezela da,
egiaren otsa.

Ona eta egia
gizonaren itzetan
bat biurtzen dira;
au da pozaren garra
bizia urratirik,
gizonei begira.

AIZEA

Aizea, itz egidak.
Burdin ala arri az
. ire putz aldian...?
Gorputzik ba al daukak
asarrez oiukeran
mendi gbizkarrean...

Zelan dardaratzeituk
eskurik ez ba-daukak,
ar-zulo baltzenak...?
Zer indar dok iregan
burdin gabe austeko
arkaitz gogorrenak...?

Ikusten ez diran gauzak...
ba al dituk munduan
sinisgabietan...?
Gabean sinistu jok
etxe zarra jausita,
aize dardaretan.

Ator aize garbia,
birikien ametsa
urdin gardenetik;
urratu egik argia,
biziaren indarra,
zeru bizkarretik.

Egaz jatok aizea
ego barik aidean
bizia eskeintzen.
Ez jok margorik, ez oin.
Lagun orotan jabilk
bizia barritzen.

PAULIN